

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure proiektuak ez dauka bezero zehatzik, behintzat hasiera batean. Hau da, gure proiektua aurrera eraman bitartean bezero baten bat aurkitzen saiatuko gara. Bezero izateak ez ditu onurak izango. Guztiz bolondres egin behar den ekintza bat da.

Gure tratua bezeroarekiko guztiz eskuzabala eta estua izango da. Lehenik eta behin, gure helburua zein den adieraziko diogu. Honek, gure ekintza hobeto ulertzera eramango du. <

Bezero izatera eraman duen egoera aztertuko dugu. Normalean, garai honetan enpatikoa izan den norbaitek sufrimendu asko sentitu dezake. Agian, noizbait egoera antzekoren bat jasan edo ikusi du, beraz gurekin elkartzea aukeratu du. Bestalde, badakigu esfortzu hori egitea zaila eta arraroa dela. Horregatik, laguntzen diguten bezeroei eskerrak emango dizkiegu bazkarira gonbidatzen.